

IRIZPENA 16/01

Maite Alonso, presidentea
Xabier Aizpurua
Juan Carlos Jauregui
Amaia Jauregiberri
Isabel Kapanaga
Raimundo Rubio
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2016ko urtarrilaren 9ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **EAEko bigarren hezkuntzako irakasleen kidegora sartzeko hautaketa prozesua deitzen duen Agindu proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, EAEko Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzkoak, bere 16. artikuluan dio lehiaketa-oposaketa izango dela karrerako irakasle funtzionarioak hautatzeko sistema eta lehenik deialdi publikoa egingo dela.

Otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren (zeinaren bidez onartzen baita Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle kidegoetara sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko araudia eta zeinaren bidez arautzen baita aipatu legearen hamazazpigarren xedapen iragankorrean jasotako sartzeko behin-behineko erregimena) 3. artikulua dio administrazio publikoek, dagozkien enplegu eskaintzak onartu ostean, deialdiak egingo dituztela aipatu enplegu eskaintzetan baimendutako plazak hornitzeko, uneoro aplikatzekoak diren Funtzio Publikoko araei jarraiki.

Oraindik argitaratzeko dago Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2016ko enplegu eskaintza publikoa onartzen duen Agindua.

Irizpen honen xede den agindu proiektuaren sarreran adierazten den legez, LOEk eta hura aplikatzeko 276/2007 Errege Dekretuak (III. eta IV. tituluak, sartzeko sistemei dagokienean, eta V. tituluak, espezialitate berriak eskuratzeko prozedurari dagokionean) ezarritakoaren arabera deitu behar dira unibertsitatekoak ez diren irakasle kidegoetarako Lan Eskaintza Publikoak (LEP).

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 2 artikulua eta azken xedapen bat ditu: lehenengoak LEPa deitzen du eta bigarrenak deialdiaren oinarriak onartzen ditu. Azken xedapena berraztertze errekursoei buruzkoa da.

6 eranskinetan jasotzen dira merituen baremoa, irakaskuntzarako titulu baliokideak, curriculumak, gai-multzoak, proba praktikoa, eta hautagai izateko titulazio akademikoaren eta eskuratu nahi den espezialitatearen arteko konkordantziak.

Oinarriak 3 titulutan antolatuta daude. Lehenengo tituluan (*I. Sartzeko prozedura*) alderdi hauek jaso dira: xedea, parte-hartze txandak, plazak eta aplikatzekoa den araudia. Guztira 577 plaza eskainiko dira lehiaketan, hamabost espezialitateetan banatuta, eta guztiek izango dute HE2 hizkuntza-eskakizuna.

Hauek dira gainerako kapituluaren tituluak:

2. Parte hartzeko baldintzak
3. Parte hartzeko eskaera: tasak, dokumentazioa, tokia eta epea
4. Hautagaiak onartzea
5. Hautaketa organoak
6. Oposaketa fasea
7. Lehiaketa fasea
8. Hautaketa prozesua gainditzea
9. Praktika fasea
10. Karrerako funtzionarioak
11. Ordezkapen zerrendetan sartzea

II. tituluan espezialitate berriak eskuratzeko prozedura jasotzen da. (16-23 artikulua)

III. titulua (24 art.) datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa da.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Agindu proiektu honek gehienbat jasotzen du 2015eko maisu eta maistren kidegorako LEPean arautu zen edukia, baina, ikusi dugu zenbait aldaketa egin zaizkiola, eta, Kontseiluaren iritziz, baliagarriak izan dira deialdia hobetzeko:

Batetik, 2015ean argitaratutako Aginduak kontuan hartu zuen Kontseilu honek 15/03 Irizpenean proposatutako aldaketetako bat: oposaketa-fasea ebaluazio

positiboarekin gainditu eta hautatuak izan ez diren pertsonen ordezkapen zerrendetan sartzeko duten eskubidea.

Bestetik, hauek dira aurreko deialdiarekin alderatuta sartu zaizkion nobedadeak:

- Ziurtagiri bat eskatzea egiaztatzeko hautagaia ez dagoela epai irmoz kondenatua sexu askatasunaren eta osotasunaren aurkako delituren batengatik. (2.1.h) oinarria).
- Epaimahaietako eta barematzeko batzordeetako kideen zozketa lurralde mailakoa izango da, espezialitate bakoitzeko epaimahaiak egoitza izango duen tokiko lurralde historikoaren arabera. (7.3.1) oinarria).
- Bigarren probako oposaketa fasearen kalifikazioan, zati bakoitzaren kalifikazioa eta azken kalifikazio haztatua emango dira. Aurreko aginduan, berriz, bi proben kalifikazio globala baino ez zen jasotzen. Kontseilu honek emandako irizpen hartan ere eskatu zen hori. (7.4.1.2) oinarria).
- Lehiaketa fasea barematzean kontuan hartuko da kidegoan sartzeko aurkeztutako tituluan jasota dagoen espediente akademikoaren batez besteko nota (I. Eranskinetik II.1 Atala eta II. Eranskinetik III.1.1. Atala). Notaren batez bestekoak gutxienez 6 puntukoa izan behar du horretarako. Alderdi hori kontuan hartu zen pasa den ikasturteko maisu eta maistren kidegorako LEPen.

Gainerakoari dagokionean, Kontseiluaren balorazio eta proposamenak jarraian adierazitako gaietan zentratu dira, oinarrietan agertzen diren hurrenkeran:

- **1.2 oinarria**

Estatuko Aurrekontu Orokorren legeak mugatzen du eskaintzen den plaza kopurua, urtero ezartzen dituen berraztertze tasen arabera. 2016aren kasuan, tasa %100ekoa da. Kontseiluaren iritziz, positiboa da 577 plazako enplegu eskaintza berria, eta beste batzuetan bezala, bide beretik jarraitzeko eskatzen dio Hezkuntza Sailari, bitartekotasun portzentajea murriztea lortu arte.

Euskadiko Hezkuntzari buruzko 2012-13 Txostenean, irakasleen egonkortasunari buruzko epigrafean, esaten zen bigarren hezkuntzako irakasleen %30 bitarteko langileak direla. Dena den, txostenak berak azaltzen duenez, portzentaje hori nabarmen murriztuko litzateke plantilla osagarriko plazak eta "ikastetxeak taxutu beharreko lanpostuak" (beren ezaugarriak direla-eta ezin dira plantilla organikoan sartu) ateraz gero. Bestalde, kontuan hartu behar da bigarren hezkuntzako irakasleen %28k 55 urtetik gora zeuzkala ikasturte horretan.

Gauzak horrela, *Kontseiluak planteatu du komenigarria dela Lan Eskaintza Publikoen deialdiak egiten jarraitzea, plantillen egonkortasun balioak muga onargarrietan mantendu ahal izateko, kontuan izanik, batetik, gero eta irakasle gehiago ordezkatu beharko direla, eta bestetik, irakasleek profil berriak behar dituztela.*

- **1.5 oinarria:**

Plaza portzentaje bat -ehuneko zazpikoa- dago erreserbatuta, ezgaitasunen bat duten pertsonen bete beharrekoa, eta oinarri honek dio ezen portzentaje horretatik gutxienez ehuneko bi adimen ezgaitasuna duten pertsonen estaltzeko erreserbatu behar dela.

Kontseiluak proposatzen du berrikusi egin beharko litzatekeela egokia ote den adimen ezgaitasuna duten pertsonentzako plazak erreserbatzea.

- **3.1.1 oinarria**

Deialdiak aukera ematen die hautagaiei espezialitate bat baino gehiagotara aurkezteko, baina praktikan eskubide hori mugatzen du, aipatuz espezialitate desberdinetarako frogak batera deitu ahal izango direla:

“Espezialitate bat baino gehiagotarako eskaera aurkezten bada, hautagaiei ezin zaie bermatu eskatutako espezialitate bakoitzerako probak egin ahal izango dituztenik. Espezialitate desberdinetako frogak batera hasiko balira, ez da itzuliko azterketa egiteko eskubideagatik ordaindutako tasa”.

Kontseiluak ulertzen du espezialitate desberdinetako datak bat etorri gero, ordaindutako zenbatekoa itzuli egin beharko litzatekeela, aldez aurretik frogatuz deialdietako batera aurkeztu dela.

- **5.2.2 oinarria**

Epaimahaien osieran ezartzen da kideak zozketa bidez izendatuko direla, titular kopuruaren ondorioz zozketarik egin ezin den espezialitateen kasuan izan ezik. Bestalde, seigarren paragrafoan dio gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuko dela.

Kontseiluak uste du zozketa bidez zaila izango dela gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua bermatzea, salbu eta horretarako prozedura zehatz bat ezartzen ez bada.

- **7.1.1 oinarria eta VI. eranskina**

Proba praktikoaren ezaugarriak 7.1.1.1 oinarrian eta VI. eranskinean daude jasota. Lehen kasuan:

“A zatia: proba praktikoa, zeinaren bidez egiaztatuko baita hautagaiek hautatutako espezialitateari dagozkion prestakuntza zientifikoa dutela eta behar diren gaitasun teknikoak menperatzen dituztela.

Proba praktikoaaren edukia VI. eranskinean dago zehaztuta”.

Bestalde, hauxe da VI. Eranskinaren testua:

“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bere web orrian argitaratuko ditu espezialitate bakoitzeko proba praktikoen ezaugarri espezifikokoak. Epaimahaien proposamenez proba horietan ariketa hauek sar daitezke: testu, dokumentu edo adierazpen artistikoen analisia eta aipamena, itzulpenak, galderak, arazoak eta kasuak ebaztea, gaitasun teknikoak edo instrumentalak frogatzea eta estrategiak eta proiektuak formulatzea. Nolanahi ere, espezialitateko gai-multzoarekin edota indarrean dauden curriculumekin lotutako kontzeptuen aplikazio praktikoa egin beharko da.

Kontseiluak pentsatzen du idazkera hau hobe dela aurreko agindukoa baino, probaren izaera praktikoa bermatzen duelako. Halere, ezin izan ditu aztertu web orrian argitaratuko diren proben ezaugarri espezifikokoak, beraz, ezin du esan egokiak diren ala ez. Dena dela, berriro eskatzen du, epaimahaiak hala proposatuta, *web orrian erantsi daitezela kasu praktikoen hainbat adibide, hautagaiek behar adinako bermearekin prestatu dezaten proba.*

- **15. oinarria**

Oinarri honen arabera, bi probak ebaluazio positiboarekin gaingitu eta plazarik eskuratu ez duten pertsonak eskubidea dute ordezkapen zerrendetan sartzeko. Halako kasuetan dauden pertsonak zerrenda batean egongo dira, hautaketa prozesuan eskuratutako azken puntuaketaren arabera ordenatuta, eta, ondoren, hautaketa prozesutik zetorren zerrenda bereizi horretako pertsonak zerrenda orokorrean sartuko dira, ordezkapenak egiteko hautagai zerrendaren urteroko birbarematze prozesuaren baitan.

Kontseiluak uste du urteroko birbarematze prozesuan kontuan har litekeela baita ere oposaketa-fasean eskuratutako puntuaketa, tituluaren espediente akademikoko batez besteko nota ere kontuan hartzen delako.

- *I. Eranskina*

Deialdi honetako merituen balorazioan funtsean 276/2007 Errege Dekretuan ezarritakoa jasotzen da, eta horregatik, irakaskuntza eta prestakuntza arloko esperientzia aztertzean irakaskuntza ofizialetan lortutako merituak bakarrik hartzen ditu kontuan.

Horregatik, baremoaren atal horretan bakarrik hartzen dira kontuan hizkuntza eskola ofizialetako ziurtagiriak, bai indarrean daudenak, bai haien baliokideak. Merituen atalean, berriz, 73/2012 Dekretuaren eranskinean jasotako ziurtagiri guztiak onartzen dira.

Prestakuntza Akademikoa atalean 5 puntu lor daitezke gehienez, eta *Beste meritu batzuk* atalean, berriz, 2 bakarrik. Beraz, organismo desberdinek emandako ziurtagiriek termino absolutuetan balio bera izan arren, termino erlatiboetan, baliteke "Beste meritu batzuk" ataleko balioa txikiagoa izatea, atal horretan erraza baita gehienezko 2 puntuak lortzea etengabeko prestakuntza ikastaroen bitartez. "Prestakuntza Akademikoa" atalean, aldiz, zailagoa da gehienezko 5 puntuak lortzea, beste titulazio batzuk behar direlako. Bestalde, Hizkuntza Eskola Ofizialetako C2 maila ez da existitzen gure erkidegoan, eta 73/2012 Dekretuaren eranskinean jaso ere ez da egiten.

Kontseiluak uste du oinarrizko araudiak baldintzatutako kontu bat dela, baina, hala ere, berriro landu beharko litzatekeela prestakuntza akademikoaren atalean kontuan har daitezkeen dekretu horretan jasotako beste organismo batzuek emandako titulu eta ziurtagiriak.

Beste alde batetik, eta dekretu honi ez dagokion arren, arauaren azken xedapenean aurreikusi bezala, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskina eguneratu egin behar da C2 mailari dagokionez, zeren ez baita jasotzen hizkuntza eskola ofizialetako C2 mailaren baliozkotasuna aipatzen diren hizkuntzetarako (ingelesa, frantsesa eta alemana).

- Beste alde batetik, II.c.3 eta III b.2 oharren idazkera nahasgarria da. II.4 azpi-atalean ulertu daiteke organismo desberdinek emandako hizkuntza baten ziurtagiria behin bakarrik puntuatuko dela, baina Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako tituluen kasuan bakarrik gertatzen da hori. Horregatik, Kontseiluak proposatzen du azalpen hau eranstea idazkeran:

*Hizkuntza baten ezagutza maila frogatzeko organismo desberdinek (II.4.b. eta III.4 azpi-atalean aurreikusitako edozeinek) emandako bi titulu edo ziurtagiri edo gehiago aurkezten badira, eta horietako bat **Hizkuntza Eskola Ofizialetakoa bada**, behin bakarrik puntuatuko da hizkuntza horren ezagutza II.4.b) atalean, salbu eta parte-hartzaileak besterik esaten ez badu.*

Azkenik, Kontseiluak berriro eskatu nahi du aurreko LEPari buruzko 15/03 Irizpenean eskatu zuena, hau da, kontuan hartu daitezela bestelako hezkuntza-praktika batzuk, esaterako, arautu gabeko mailetan izandako esperientzia edo hezkuntza ez-formalaren esparruan garatutako jarduera, bai lankidetzeta eta boluntariotzeta lanetan, bai jardueretan, eta bai aisialdiko hezkuntza-jardueretan, Hezkuntza Sailak homologatutako titulazioen arabera.

Horregatik, Kontseiluak Hezkuntza Sailari eskatzen dio kontuan har dezala arautu gabeko mailetan, lankidetzeta eta boluntariotzeta proiektuetan, eta lankidetzeta, aisialdi eta denbora libreko jardueretan lortutako esperientzia, Beste Meritu Batzuk izeneko I. Eranskinen III. atalaren barruan.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2016ko urtarrilaren 19a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUA